Lan-eskaintzen erregistroa 2022ko urrian

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2022ko urrian Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 1.200 izan da, urrian baino 373 gutxiago eta joan den urteko urrian baino 348 gutxiago.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2022ko urrian 217 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 438 Gipuzkoan eta 545 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 36,5 Gipuzkoako KAUetan erregistratu dira, % 45,4 Bizkaiakoetan eta % 18,1 Arabakoetan.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 8 hazi dira eskaintzak (16 eskaintza gehiago). Bizkaian 294 eskaintza gutxiago izan dira (% 35eko beherakada) eta, azkenik, Gipuzkoan 85 eskaintza gutxiago erregistratu dira (% 17,8ko beherakada).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 8 eskaintza gehiago erregistratu dira, % 3,8ko hazkundea, Bizkaian % 31,5 murriztu dira eskaintzak (251 gutxiago), eta azkenik, Gipuzkoan % 16,2koa da beherakada (- 85 eskaintza).

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Lanbide-profilei dagokionez, zientzietako teknikarien profilerako erregistratu dira eskaintza gehien; 247 eskaintza eta, % 20,6ko pisua eskaintza guztien artean. Laguntzako teknikarien profilak jarraitzen dio (245 eskaintza, % 20,4ko pisua). Industriako, ez kualifikatuen eta zerbitzuetako eskaintzek, ere, pisu nabarmena dute; 205, 154 eta 138 eskaintza erregistratu dira, hurrenez-hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak, zuzendariak eta lehen sektorekoak izan dira, 2 eta10 eskaintza, hurrenez hurren.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, eskaintza mota guztietan murriztu dira eskaintzak. Gehien murriztu direnak, balio absolutuetan, zientzietako teknikarien profilekoak izan dira (183 eskaintza gutxiago, % 42,6ko beherakada); balio erlatiboetan, berriz, beherakada nabarmenena zuzendarien eskaintzatan gertatu da (% -75ko beherakada, 6 eskaintza gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, profil guztietako eskaintzak murriztu dira, makinerietako operadoreena izan ezik; 23 eskaintza gehiago izan dira (% 40ko hazkundea). Gehien murriztu direnak, balio absolutuetan, zientzietako teknikarien profilekoak izan dira (148 eskaintza gutxiago, % 37,5eko beherakada); modu erlatiboan, aldiz, beherakada nabarmenena zuzendarien profileko eskaintzek jasan dute (% 84,6ko jatsiera, 11 eskaintza gutxiago).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 32,1ek kontratu mugagabea eskaini dute; % 66,9k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 1ak, merkataritzakoa. Kontratu mugagabea eskaini duten eskaintzen portzentaia altua da; 2021etik zetorren joera indartzen ari da 2022an. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 385 izan dira, aurreko hilabetean baino 54 eskaintza gutxiago (% 12,3ko beherakada). Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 323 eskaintza gutxiago erregistratu dira: 803 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan beherakada % 28,7koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2022ko urrian 12 izan dira, aurreko hilean baino 4 gehiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 168 gehiago izan dira (% 77,4ko hazkundea); aldi baterako kontratuen eskaintzak % 38 murriztu dira (493 eskaintza gutxiago). Eta, azkenik, merkataritzako 3 kontratu gutxiago erregistratu da (15etik 12ra,azken urtean).

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2022ko urrian erregistratutako lan-eskaintzen % 79,1ek, 949 eskaintzak, 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 11,2k (135 eskaintza) 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dute. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 2ko pisua dute (24 eskaintza) eta, 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen duten 5 eskaintza egon da hil honetan (eskaintza guztien % 0,4).

Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintzak murriztu egin dira tarte guztietan, 3 eta 5 urte artekoetan izan ezik (4 eskaintza gehiago erregistratu dira; % 20ko gorakada). Gehien murriztu direnak, balio absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (301 eskaintza gutxiago, % 24,1eko beherakada); balio erlatiboetan, aldiz, beherakada handiena 5 urtetik gorakoen artean gertatu da (% 28,6koa izan da beherakada, 2 eskaintza gutxiago).



Urte arteko eboluzioari dagokionez, esperientzia tarte guztietan murriztu dira eskaintzak 5 urtetik gorakoen artean izan ezik; 4 eskaintza gehiago erregistratu dira (% 400eko gorakada). Gehien jaitsi den tartea, balio absolutuetan, 0-6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenena izan da 264 eskaintza gutxiago jaso baitira (%21,8ko beherakada); balio erlatiboetan, aldiz, 3-5 urteko esperientzia tartea eskatzen dutenen tartea izan da (-11 eskaintza,% 31,4ko beherakada).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 6 hileko esperientzia eskatzen dute, aurreko hilean baino bat gutxiago.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 12,9k zehazten du datu hori (1.200 eskaintzetatik 155). 155 eskaintza horietatik, 126k lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 29ak, lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 190 gutxiago izan dira irailarekin alderatuz, hau da, % 60,1 jaitsi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak ere murriztu egin dira; 4 eskaintza gutxiago eta murrizketa erlatiboa % 12,1ekoa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 100 gutxiago izan dira (% 44,2ko beherakada), eta lanaldi partzialeko kasuan, berriz, 2 gutxiago (% 6,4ko beherakada).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 20 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 8 eskaintza gehiago eta aurreko urtean baino 7 gehiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 77,8k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.200 eskaintzetatik 267k soilik zehaztu dute.



267 eskaintza horietatik, 99k bai unibertsitateko zein LHko prestakuntza maila eskatu dute; ikasketa maila hau duten eskaintzak izan dira ugarienak. Azkenik, oinarrizko eta batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (47 eta 22 eskaintza, hurrenez hurren).

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, mota guztietako ikasketen eskaintzak murriztu dira batxilergokoak izan ezik; 4tan hazi dira (%22,2 gehiago). Gehien murriztu diren eskaintzak, balio absolutu zein erlatiboetan, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (109 eskaintza gutxiago, % 52,4ko beherakada).

2021eko urriarekin alderatuta, murriztu egin dira eskaintzak ikasketa maila guztietan. Urte arteko erreferentzian, unibertsitateko ikasketen eskaintzak izan dira gehien murriztu direnak; 79 eskaintza gutxiago eta % 44,8ko beherakada. Balio erlatiboetan, beherakada handiena derrigorrezko ikasketak eskatzen dituztenen artean gertatu da; -% 45,4 eta 39 eskaintza gutxiago.

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen dena administrazio publikoa da; honen pisua eskaintza guztien % 21,5ekoa izan da (258 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera bat manufaktura industria da, eskaintzen % 14,1eko pisuarekin (169 eskaintza).

Aurreko hilari erreparatuz, ia eskaintza guztiak hazi dira. Balio absolutuetan, gehien jaitsi diren eskaintzak, administrazio publikokoak izan dira (109 eskaintza gutxiago, % 5eko beherakada); balio erlatiboetan, aldiz, beherakada nabarmena beste zerbitzuetako jarduerek izan dute (% 72,6ko jaitsiera, 90 eskaintza gutxiago). Beste muturrean, profesional zientifikoak daude; 25 eskaintza gehiago erregistratu dira eta igoera erlatiboa % 25ekoa izan da.

Urte arteko saldoari erreparatuz ere, eskaintza gehienak murriztu egin dira. Bilakaera hoberena izan duten eskaintzak, zientzietako profesionalak izan dira (7 eskaintza gehiago, % 5,9ko hazkundea). Bilakaera okerrena izan duten eskaintzak, balio absolutuetan, administrazio publikokoak izan dira (80 eskaintza gutxiago eta % 23,7ko beherakada); balio erlatiboetan, berriz, beherakada handiena beste zerbitzuetan gertatu da (% 66 jaitsi da, 66 eskaintza gutxiago).